



Barakaldoko Udalaren Euskararen Plan Estrategikoa AROA 2025-2029



Barakaldo
CIUDAD · HIRIA

emun
Euskara eta
berrikuntza soziala



Aurkibidea

1.	Sarrera	3
2.	Metodologia	4
3.	Diagnostikoa	7
	3.1 Datu kuantitatiboak	7
	3.2 Datu kualitatiboak	12
4.	AROA 2025-2029	23
	4.1 Misioa, nahi estrategikoa, ikuspegia	23
	4.2. Ardatz estrategikoak	24
	4.3. Koordinazioa eta egitura	33
	4.4. Adierazleak	34
5.	Eranskinak	35
	5.1 Galdetegi orokorreko erantzunak eta ondorioak	35
	5.2 Herritarrekin egindako gogoeta saioetako aktak	40
	5.3 Barakaldoko familiekin egindako inkestaren ondorioak	46
	5.4 Prozesuan parte hartu duten eragileak	50



1. Sarrera

Euskara gure herriaren berezko hizkuntza eta, gaztelaniarekin batera, ofiziala da Euskal Autonomia Erkidego osoan. Euskal herritar orok du eskubidea euskara jakiteko eta edozein esparrutan erabiltzeko. Horrenbestez, herri administrazioen betebeharra da herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta gizarteko esparru guztietan euskaraz aritzeko eta bizitzeko aukerak eskaintzea.

Elebitasun orekatu batera iristeko asmotan, Barakaldoko Udalak hizkuntza politika definitu eta euskararen erabileraren aldeko konpromisoa, sentsibilizazioa eta eredu-garritasuna landuko du. Langintza honetan, halere, Barakaldoko Udala motorra izan behar den arren, lidergo konpartitua sustatu beharko du eta adostasun politiko eta sozial zabal batez jokatu, Udalaren eta herri mugimenduaren arteko elkarlana eta sinergiak indartuta.

Horretarako, Barakaldoko Udalak 2025-2029 epealdirako Euskara plana diseinatzeko prozesua ireki du 2024. urtean. EMUN hizkuntza aholkularitza enpresaren laguntzaz, aurreko euskara plana baloratu, barakaldarren artean euskararen egoerari buruzko inkestak egin dira eta herriko eragileekin, arduradun politiko eta udal teknikariek gogoeta saioak egin dira, hurrengo hamarkadako Barakaldo irudikatze, alegia, non gauden eta noraino heldu nahi dugun adosteko.

Plan honen helburu nagusia gure udalerrian, esparru publiko zein pribatuetan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko oinarriak jartzea izango da; Barakaldon euskara prestigiatzea eta euskal komunitatea aktibatzea.

Era berean, Barakaldoko Udalak hizkuntza politika inklusiboa bultzatu nahi du, ahalik eta sektore gehien erakartzeko euskarara. Aniztasun handia eta premia oso ezberdinak ditugu udalerrian; hori dela eta, hizkuntza politika eraginkorra izango bada, gizarte anitz horren errealitatea hartu behar dugu aintzat. Guztiontzako helburu egingarriak eta ilusionagarriak behar ditugu, euskaraz eroso senti gaitezen.

Hori guztia aintzat hartuta, plan hau diseinatu ahal izateko, funtsezkoa izan da EMUN enpresaren gidaritza, haiek erabilitako metodologia, praktika eta jarraibide argiei esker, Udaleko eta herriko sektore desberdinetako eragileen inplikazioa, atxikimendua eta konpromisoa bermatzea lortu da eta. Alde horretatik, eskerrak eman behar zaizkie bidea egiten lagundu diguten guztiei. Haien fruitu da Euskara plan hau.



2. Metodologia

AROAren plana egiteko metodologiak lau urrats nagusi izan ditu:



Aurrelanak eta egitura

Hasiera batean prozesu osoa diseinatu da: prozesuaren helburua eta aurreikusitako emaitza, kronograma, herritarrek parte hartzeko une eta formatuak, prozesua aurrera eramateko egiturak eta rolak, eta komunikazio lanak. Baita, prozesu osoan zehar genero ikuspegia bermatzeko kontuan hartuko diren elementuak.

Prozesuan zehar, lekua egin zaio gobernantzari eta antolamenduari ere, AROA markoaren zati garrantzitsua baita hori. Hala saio irekietan nola kontraste taldean, plana aurrera eramateko egiturez hitz egin da, eta hainbat ideia jaso dira. Besteak beste ideia horietan oinarrituta egin du Talde Eragileak plana inplementatzeko egituren proposamena.



Hona hemen prozesurako sortu diren egiturak eta horien egitekoak:



TALDE ERAGILEA

Prozesuaren koordinazioa eta komunikazioa.

- Euskara Zerbitzua
- Emuneko aholkulariak



POLITIKARI ETA TEKNIKARIEKIN SAIOAK

Prozesuaren hasieran eta amaieran ekarpenak jasotzea.

Udalaren parte aktibo diren ikuspegia eta kontrastea jasotzeko eta kudeaketak eta lidergoak daukan garrantzia azpimarratzeko bidea izan da.



SAIO IREKIAK: HERRITARRAK/ ERAGILEAK

Arlo bakoitzeko erronkak identifikatu.

Modu irekian egindako saioak. Lehenengoa, diagnostikoa osatzera begirakoa, eta bigarrena, diseinua osatzera begirakoa.



XEDE TALDEEKIN KONTRASTEAK

Emaitzaren kontrastea herriko hainbat interes talderekin.

Hezkuntza, familiak, gazteak eta etorri berriak

Diagnostikoa

Diagnostikoa osatzeko informazio iturri eta bide hauek baliatu dira:

- **Datu** sozioekonomiko eta soziolinguistiko esanguratsuenak: iturri ofizialetatik ateratakoak (Eustat, EAS-Euskararen adierazle sistema, udalaren eskumenekoak direnak...); datuen bilketa eta horien inguruko irakurketa egin da.
- Herritarrei zuzendutako **galdetegiak**
 - Bi galdetegi zabaldu dira herritarren artean, bata gazteei zuzendutakoa (16-25 urte) eta bestea helduei zuzendutakoa (26 urtetik gora) herrian euskararen egoerari buruz duten iritzia jasotzeko. Bi galdetegi ezberdinen bitartez egitea erabaki da, adinaren arabera egon daitezkeen iritzi ezberdinak jaso ahal izateko eta aurrera begira egingo diren ekintzak herritarrei ahalik eta gehien egokitzeko.
 - Galdetegia 12 galderaz osatuta egon da eta euskaraz zein gaztelaniaz erantzuteko aukera eskaini da.
 - Galdetegien zabalkundea udaleko sareen bitartez eta gertuko eragileen bitartez egin da.
- **Aurreko euskara planaren** analisia: gizarte eragileek ondo egindakoak eta hobetzekoak identifikatu eta aztertu dituzte.
- **Arduradun politikoekin eta teknikoekin hausnarketa saioa:**
 - Bi saio egin dira, lehenengoa diagnostikoa osatzeko saioa izan da. Saio honetara udaleko zinegotzi eta arduradun teknikoak gonbidatu dira.



- Helburuak: orain arte egindakoaren balorazioa egitea, esparru ezberdinetan egungo egoeraren inguruko iritziak jasotzea eta aurrera begira eragiteko lehentasuneko eremuak identifikatzen hasia.

→ **Herritarrekin egindako lehenengo saioa:**

- Herritarrekin egindako lehenengo saioa diagnostikoa osatzera begira egin da. Horrez gain, herritarrei prozesuaren berri emateko eta aurrera begira lehentasunak ezartzen hasteko erabili da. Saioaren hasieran genero ikuspegitik espazioaren ezaugarritzea egin da eta bertaratutakoen parte hartze orekatua sustatzeko dinamikak planteatu dira.
- Parte hartzeko deialdia irekia izan da. Sare sozialen, web gunearen eta harreman sareen bidez zabaldu da.
- Saioa antolatzeko momentuan kontuan hartu da espazio eta ordutegi irisgarriak izatea herritarrentzat.

Diseinua

Planaren diseinuaren proposamena Talde Eragileak egin du hurrengo informazioa jaso ostean:

→ **Bigarren saioa herritarrekin:**

- Bigarren saioa diagnostikoan oinarrituz aurrera begirako erronkak eta lehentasunak non dauden definitzera bideratu da. Bertaratutakoen errealitate anitzak baliatu dira horretarako. Saioaren hasieran genero ikuspegitik espazioaren ezaugarritzea egin da eta bertaratutakoen parte hartze orekatua sustatzeko dinamikak planteatu dira.
- Lehenengo saioan bezala, deialdi irekia egin da.
- Saioa antolatzeko momentuan kontuan hartu da espazio eta ordutegi irisgarriak izatea herritarrentzat.

→ **Bigarren saioa arduradun politiko eta teknikoekin:**

- Bigarren saioa prozesuaren eta emaitzaren inguruko ekarpenak eta kontrasteak jasotzeko erabili da.
- Politikari eta teknikariak gonbidatu dira.

→ **Kontraste bilerak xede taldeekin:**

- Gazteak
- Hezkuntza komunitatea
- Familiak
- Migranteak
 - Barakaldo bezalako udalerrri batean, goian aipatutako taldeak euskararen zabalkunderako estrategikoak izanik, kontraste bilera hauen helburua giza-talde hauen premiak eta lehentasunak bertatik bertara ezagutzea izan da.

Ondoren, Talde Eragileak eman dio forma prozesuan zehar jasotakoari, eta plan zehatza diseinatu du, AROA markora egokituta.




3. Diagnostikoa

Atal honetan Barakaldoko argazkia jaso dugu, datu kuantitatibo esanguratsuenak aukeratu ditugu eta prozesuan zehar aztertutako datu kualitatiboak ere bai AROA marko berriaren ataletan banatuta.

3.1 DATU KUANTITATIBOAK

Datu kuantitatiboek dagokionez, Barakaldo ezaugarritzen duten datu esanguratsuenak jaso ditugu planaren norabidea hobeto zehazten laguntzen dutenak: datu soziodemografikoak, datu soziolinguistikoak, hala nola, hizkuntza gaitasunari buruzkoak, erabilera edota hezkuntza ereduak eta euskalduntze-alfabetatze datuak. Baita ere bestelako datu interesgarri batzuk ere.

Joera demografikoa, datu sozioekonomikoak



Barakaldon, egun, **101.392** bizilagun daude, horietatik 52.306 emakumezkoak dira eta 49.086 gizonezkoak.



Adinari erreparatuz gero, biztanleen % 21,23 25 urtetik beherakoa; 65 urtetik gorakoak, berriz, % 23,66 dira. Atzerritik datorren biztanleria, berriz, % 12,95 da (2024).


Datu sozioekonomikoei dagokionez, berriz, zerbitzuen sektorea nagusitzen da (%86) industriaren aldean (%6) . Irudian mapa osoa, EUSTATEko datuen arabera.

EKONOMIA-ENPRESA



Iturria: EUSTAT, Udaletako datuak

Gehiago zehatzuz, establezimenduen jarduerari dagokionez, gehiengoa merkataritza, garraioak eta ostalaritza arlokoa da, eta eraikuntzak ere leku garrantzitsua hartzen du.



Iturria: EUSTAT, Udaletako datuak


Pertsona enpleguatuak udalerriko establezimenduetan 2023an 30.239 ziren.



Datu soziolinguistikoak

Barakaldoko datu soziolinguistikoak jaso ditugu jarraian, *hizkuntza gaitasuna edo ezagutza, lehen hizkuntza, Barakaldoko ikastereduak eta euskalduntze-alfabetatzeari* buruzko datuak aurrera begirako plana zehazterakoan oinarrizko datuak direlakoan.

Honatz 2021eko datuak (azken eroldakoak), eta 1991koak, bilakaera aztertu ahal izateko.




Iturria; Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua, 1996-2021

Grafikoan ikusten denez, euskaldunen kopuruak gora egin du eta erdaldunena jaitsi. Berdin mantendu da Euskaldun hartzaileen kopurua.

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, hau joera orokorra izan da Bizkaian eta EAEn.


Lehen hizkuntzari dagokionez, hizkuntza gaitasunarekin gertatzen den bezala, Barakaldoko datuak EAE eta Bizkaiko joera orokorrekin bat datoz. Agerian dago lehen hizkuntza nagusia gaztelania dela.






Iturria; Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 1996-2021

Euskaldun motari dagokionez, berriz, argigarria da jarraian erakutsi dugun grafikoa eta bertan ageri denez, euskaldun berriak gero eta gehiago dira Barakaldon eta gutxiago euskaldun zaharrak. Datu honek ere Bizkaiko joera orokorrarekin bat egiten du.



Iturria; Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 1996-2021

Etxean erabiltzen den hizkuntza dela eta, poliki bada ere, gehiago erabiltzen da euskara Barakaldoko etxeetan eta hazi egin da, halaber, bi hizkuntzen erabilera. Kale-erabilerari dagokionez, % 0,7 da Barakaldon erabilera.






Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2001-2021


Ikastereduei dagokionez, 2023-2024 ikasturtea % 48,9 izan dira D ereduan ibili diren ikasleak. Oraindik ez da ikasleen erdira iristen, baina bilakaerari erreparatuz gero, datuak bilakaera positiboa du.

D ereduan matrikulatutakoak gora doaz eta B ereduak beheranzko joera badu ere, matrikulazio datu altua dago oraindik.



Iturria: Barakaldoko Udala, Euskara Zerbitzua

Aipatzekoa da Helduen Euskalduntzeari dagokion datuak ere oso bilakaera positiboa izan duela; izan ere, 2023-2024 ikasturtean **2.433 ikasle** egon dira, aurreko ikasturtean baino 200 ikasle inguru gehiago.





Iturriak: Udaleko Euskara Zerbitzua, AEK, Udal Euskaltegia eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako datuak

Bestelako datu batzuk

Jarrera eta motibazioari dagokionez, Euskaraldiari buruzko datuak jaso ditugu hemen. Izan ere, Barakaldon kale-erabilera oso txikia (% 0,7) izanda ere, Euskaraldia bezalako ekimenak egiten direnean, euskaltzale kopuru esanguratsu bat aktibatzea lortzen da:



3.2 DATU KUALITATIBOAK

Galdetegiaren emaitzak: pertzepzioa

Jarraian, barakaldarren artean zabalduko bi galdetegiaren parte hartzearen eta erantzun esanguratsuenen inguruko informazioa azalduko da. Bi galdetegi ezberdin zabaldu dira, bata 16-25 urte bitarteko biztanleei zuzendua eta 25 urtetik gorakoei zuzendua bestea. Guztira, 1.032 barakaldarrek erantzun dute inkesta: bi heren (%68) 26 urtetik gorakoak izan dira eta heren bat (%32) 25 urtetik beherakoak, Barakaldoko populazio datuekin bat datorrena.


Erantzun dutenen profilari dagokionez,

- %71 emakumeak
- Galdetegiaren %33 euskaraz erantzun dira
- %45,5ak garrantzia handia edo oso handia ematen dio euskarari
- %49,9k ez du inoiz edo ia inoiz erabiltzen euskara
- Iritzi eta jarrera oso ezerdinak agertu dira euskarari buruz euskaraz eta gaztelaniaz betetako galdetegietan.

Hona hemen emaitza esanguratsuenak:



Barakaldon, euskararen erabileraren bilakaeraren inguruko pertzepzioa:



- Gazteen %82k uste du mantendu edo behera egin duela; herritar helduen %84k berriz, mantendu edo gora egin duela dio.

Erantzunak gehiago xehetuta, euskara zein arlotan ikusten duten indartsuen eta zeinetan ahulen galdetuta, honakoa da argazkia:

Gazteek erantzundakoaren arabera:

Zein arlotan ikusten duzu euskara indartsuen?		Zein arlotan ikusten duzu euskara ahulen?	
Eskolan	% 45	Lagun artean	% 31
Kultur eskaintzan	% 19	Gazteen artean	% 31
Familian	% 8	Sare sozialetan	% 28
Gazteen artean	% 6	Aisialdian	% 18
Merkataritza/Ostalaritza	% 6	Familian	% 18

Herritar helduek (>25 urtekoek) erantzundakoaren arabera:

Zein arlotan ikusten duzu euskara indartsuen?		Zein arlotan ikusten duzu euskara ahulen?	
Eskolan	% 31	Lagun artean	% 19
Kultur eskaintzan	% 14	Helduen artean	% 17
Haurren artean	% 14	Merkataritza/Ostalaritza	% 16
Harreman instituzionalean	% 9	Gazteen artean	% 15
Lan munduan	% 8	Sare sozialetan	% 15

Bat datoz 25 urtetik beherakok eta gorakoak, euskara indartsuen dagoen arloak eskola eta kultura (kultur eskaintza) direla esaterakoan, gazteen kasuan, gainera, beste arloekiko alde



handiz. Eta bat datoz, halaber, ahulen lagun arteko esparruan, hau da, kaleko erabileran dagoela esterakoan.

Aurrera begira zein arlo lehenetsi beharko liratekeen galdetuta, honakoak izan dira jasotako erantzunak:

Gazteak		Herritar helduak (>25)	
Hizkuntza ohiturak, jarrerak...	% 31	Gazteak	% 25
Euskaraz bizitzeko aukera	% 18	Euskaraz bizitzeko aukera	% 17
Euskararen prestigioa	% 15	Hizkuntza ohiturak, jarrerak..	% 16
Etorri berrien harrera	% 15	Etorri berrien harrera	% 12
Merkataritza/Ostalaritza	%13	Merkataritza/Ostalaritza	% 12

Aukeratutako 5 lehentasunetatik 4tan bat etorri dira bi adin taldeak. Ezberdintasun bakarra zera izan da, gazteek euskararen prestigioa aukeratu dutela lehentasunen artean eta helduek, ordea, gazteen arloa. Beste 4 arloak berberak izan dira bi kasuetan. Hurrenkerari dagokionez, gazteek hizkuntza ohiturak eta jarrerak lantzea lehenetsi dute eta herritar helduek, ordea, gazteen arloa. Euskaraz bizitzeko aukeretan eragitea izan da hurrengo lehentasuna bi taldeetan.

2020-2024ko ESEP-aren balorazio kualitatiboa

Aurreko plan estrategikoaren eta egungo euskararen egoeraren balorazioa egiteko eskatu zitzaizen eragile sozialei, arduradun politikoei zein udal teknikariei. Besteak beste, honako gogoeta hauek jaso dira:

Euskarak presentzia handiagoa du orain. Gaztelania da nagusi, baina aurrerapauso sendoak ematen ari dira, astiro-astiro. Edonola ere, euskara hizkuntza funtzional bihurtzeko eragin beharra dago, ez dadin ikastetxean eta aisialdian geratu. Horretarako gakoa izango da hitzunik ahaldundu eta aktibatzea.

ADMINISTRAZIOA

EGOERA

Administrazioa motorra izan behar da, sustapen lanari eta lege betekizunei dagokienean. Barakaldarren hizkuntza eskubideak bermatu eta errespetatu behar dira eta lidergo konpartitua bilatu behar da, Udalaren eta herri mugimenduaren artean ardura banaketa egokia eginda. Halaber, lorpen ilusionagarria izango litzateke Udaleko arlo eta zerbitzu guztietan euskaraz aritu ahal izatea eta euskarazko arreta bermatuta egotea.

BALORAZIOA

ONDO EGINDAKOIA

- Udal zerbitzuetan euskara gehiago erabiltzeko ekimenak.
- Komunikazioa eta hedapena

HOBETZEKOIA

- Borondate politikoa
- Hizkuntza politika
- Zerbitzu publikoen euskalduntzea



- Sektore estrategikoen arteko sare indartsua
- Elkarlana
- Adostasuna plenoetan
- Herri mugimendua, gizarte eragileak
- Baliabideak eta tresnak: araudiak, ordenantzak, politikak eta diru baliabideak
- Egitura: funtzioak, lan banaketa. EAB osatu/berrosatu, ordezkariak zehaztu
- Udala eta herri mugimendua, bi eragile ezberdin gisa hartzea
- Sektore gehiago inplikatzea, erakartzea: Kirola, etorri berriak...
- Komunikazioa eta irudi berria

AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ETA BALIZKO EKINTZAK

- Barakaldarren hizkuntza eskubideak bermatu eta errespetatzea adostu.
- Udala eredu izan euskararen erabileran, barrura begira (euskara lan-hizkuntza) eta herritarrekiko harremanean.
- Udalak, administrazioa eta zerbitzu publikoak euskalduntzea bermatu. Udalak antolatzen dituen aktibitateetan euskararen presentzia bermatu.
- Udaleko arloen eskaintza guztietan kontuan hartu euskal hiztunak.

PRESTIGIOA, OHITURAK ETA JARRERAK

EGOERA

- Giroaren arabera aldatzen da, baina, orohar, euskarak ez dauka prestigiorik herrian.
- Estres linguistikoa sortzen duten egoera asko bizi dituzte euskal hiztunek egunerokoan.
- Euskara erabiltzeko lotsa eta beldurra sentitzea ohikoa da.
- Euskaraz aritzeko aukera gehiago dago, baina gehiago baliatu beharko lirateke.

BALORAZIOA

ONDO EGINDAKOIA

- Euskara sentimendu positiboekin lotzeko egindako ekimenak: Kafealdiak, Mintzodromoa, Euskaraldia, Korrika
- Euskararekiko kontzientzia areagotu egin da
- Gehiengo zabala dago euskararen alde gaur egun
- Euskara bisibilizatzeko egindako lana

HOBETZEKOIA

- Barakaldarrak aktibatzea eta ahalduntzea
- Estres linguistikoa sortzen duten egoerak gutxitzea
- Euskara erakargarri egitea
- Euskaldun hiztunon koherentzia
- Euskararen erabileran eta euskal kulturaren erreferenteak diren pertsonak bistaratzea

AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ETA BALIZKO EKINTZAK

- Elkarriketa elebidunak “modako” bihurtu.
- Euskaldunen estres linguistikoa arintzeko ekimenak egin (EUSLE, Ahalduntze Eskola..)
- Babesguneak izan daitezkeenak sortu (Kafe Antzokia).
- Euskarari prestigioa emango dioten ekintzak egin .
- Sentsibilizazio eta ahalduntze kanpainak egin esparru guztietan (kirola, gazteak, etorri berriak, merkataritza-ostalaritza).



ETORRI BERRIAK ETA KULTURARTEKOTASUNA

EGOERA

- Etorri berriek, sarri, ez dakite nora datozen, ez dute euskarari buruzko informaziorik.
- Euskararekiko jarrera ona izan ohi dute, baina etorri berritan, eta euren egoera egonkortu bitartean, ez da lehentasuna. Hala ere, euren seme-alabek euskaraz ikastea nahi dute.
- Sarritan ez dakite zenbat denborarako datozen eta honek baldintzatu egiten du euskararekin duten harremana.
- Euskara ikasteko laguntza eskatu ohi dute, errefortzu eskoletarako laguntza, adibidez.

BALORAZIOA

ONDO EGINDAKOA

HOBETZEKOA

- Euskarari buruzko informazioa harrera planean. Askotan, eskolara iristean izaten dute euskararen berri.
- Elkarlana inmigrazio sailarekin eta eragileekin

AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ETA BALIZKO EKINTZAK

- Harrera planean euskara lehen lerroa ekarri: euskara integraziorako ardatz, seme-alabek euskara jakitearen eta euskaraz ikastearen garrantzia, euskara ikasteko aukerak eta baliabideak...
- Euskararen ezagutzan eta erabileran eredu diren etorri berriak bisibilizatu.
- Familiei zuzendutako ekimenak bideratu. Adibidez, euskara ez duten familientzako eskolaz kanpoko jarduerak antolatu (eskolan bertan seme-alabekin batera).
- Etorri berrieekin eta euren familiekin eta elkarteekin egin lan.

GAZTEAK

EGOERA

- Gazteen erreferenteak eta ereduak oso erdaldunak dira.
- Ez dute euskararen beharrik, zama da beraiantzat. Euskara eskolarekin eta ikasgaiarekin lotzen dute.
- Ikasleek ez dute euskararen ezagutza nahikorik eurenganutzen hezkuntza prozesuan eta honek zuzenean eragiten du erabiltzeko erraztasunean.

BALORAZIOA

ONDO EGINDAKOA

HOBETZEKOA

- Gazteekin lanean hastea, Gazte Batzordea martxan jartzea
- Gazteengan fokua jarri, baina ardura haiengan bakarrik jarri gabe.
- Euskaraz aritzeko jariotasuna

AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ETA BALIZKO EKINTZAK

- Gazteen erreferente euskaldunak identifikatu eta bistaratu.



- Gazteentzako erakargarriak diren ereduak eta egiteko moduak eskaini, haientzako erreferenteak diren espazioak/pertsonak bistaratu.
- Eskolatik kalera atera gazteei zuzendutako euskarazko ekintzak eta eurei eman antolatzeke eta gidatzeko ardura.
- Gazte euskaldunen aitortza egin, ahaldundu eta saritu.
- Gazteak euskaraz aritzeko erraztasuna lortzeko bidea egin (mintza saioak, mintzodromoa...)

FAMILIAK

EGOERA

- Guraso euskaldun gehiago dago eta gero eta guraso gehiagok egiten dute euskaraz seme-alabekin, adin txikikoekin, batez ere. Hala ere, gurasoak gaztelaniaz aritzen dira euren artean.
- Barakaldon familia euskaldun gutxi dago eta euren seme-alabek ez daukate aukerarik harreman sareak sortzeko euskaraz bizitzeko.

BALORAZIOA

ONDO EGINDAKOIA

- Hazten eta Hezten programa
- Bazen Behin liburutegietako programak
- Guraso gehiago euskaraz seme-alabekin

HOBETZEKOIA

AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ETA BALIZKO EKINTZAK

- Familiekin sentsibilizazioa landu, gurasoen eredugarritasunaz eta transmisioaren garrantziaz.
- Programa kulturalak eta aisialdiri lotutakoak antolatu elkarrekin gozatzeko (familia osoarentzako).
- Euskara ez duten familientzako eskolaz kanpoko jarduerak antolatu (eskolan bertan, seme- alabekin batera).

AISSIALDIA, KULTURA

EGOERA

- Globalizazioaren eragina nabarmena da esparru honetan (sare sozialak, Netflix, musika joerak...). Zaila da hizkuntza handiekin lehiatzea.
- Barakaldoko tokiko hedabideek (Tele 7...) eskaintza guztia gaztelaniaz dute.
- Ez dira lehenesten euskarazko kultura eta aisialdia.

BALORAZIOA

ONDO EGINDAKOIA

- Kultura eta aisialdian euskarazko eskaintza handitu egin da. Edozein modutan ekintza puntualen ordez, lan jarraitua egin beharko litzateke.

HOBETZEKOIA

- Euskaldunen bilguneak sortzea
- Erreferenteak bistaratzeko

AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ETA BALIZKO EKINTZAK

- Begiraleak euskaldunak direla bermatu.



- Begiraleak hizkuntza ez-formalean gaitzeko trebakuntza eskaini.
- Erreferente euskaldunak bistaratu.
- Antzokiko ekitaldiak, kaleko zinema... euskaraz ere eskaini.

KIROLA

EGOERA

- Hutsune handia dago arlo honetan. Ez dago ia euskarazko kirol eskaintzarik, ez erakunde publikoen eskumena diren zerbitzuetan ez eta pribatuetan ere.

BALORAZIOA

ONDO EGINDAKOA

HOBETZEKOA

- Udal kirol zerbitzuetan euskara bermatzea

AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ETA BALIZKO EKINTZAK

- Entrenatzaileak trebatu euskarazko zerbitzua eskaini ahal izateko (hiztegi teknikoak, elkarrizketa elebidunak...).
- Entrenatzaile direnei euskarari buruzko prestakuntza eman (erreferenteak, eredugarritasuna...).
- Udal zerbitzuetan euskarazko arreta eta eskaintza bermatzeko konpromisoa hartu eta urratsak egin.
- Kirol elkarteei zuzendutako dirulaguntzetan hizkuntza irizpideak zehaztu (hitzarmenak egin elkarteekin eta betearazi...).
- Kirol elkarteekin batera euskararen erabilera areagotzeko "planak" egin (laguntza eta baliabideak eskaini).

MERKATARITZA- OSTALARITZA

EGOERA

- Hutsune handia dago arlo honetan.
- Ostalaritzan euskaldun gero eta gutxiago dago zerbitzarien artean.
- Dendarien artean jende asko dago ulertzen duena eta interesa duena eta erantzun oso ona izaten dute egiten zaizkien proposamenek.
- Ez dago erreferentziarako toki bat euskaraz aritzeko (Kafe Antzoki moduko bat)
- Garrantzitsua da ikusaraztea euskarak etekina eta prestigioa eman diezaiokeela negozioari.

BALORAZIOA

ONDO EGINDAKOA

HOBETZEKOA

- Sentsibilizazio lana
- Paisaia linguistikoa
- Lehen hitza

AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ETA BALIZKO EKINTZAK

- Ostalaritza/Merkataritzan euskaraz jarduteko aukerak sortu (gutxienekoak bermatu: paisaia, lehen hitza, oinarrikoak ulertu...).
- Gune euskaldunak direnak identifikatzeko bereizgarri bat zabaldu.



- Euskaltzaleak erakartzeko leku bat, Kafe Antzokia.
- Euren ordutegi eta baldintzetara egokitutako ikastaroak eskaini.
- Kontsumitzaileak/erabiltzaileak euskaraz aritzeko ahaldundu- aktibatu.
- Sentsibilizazio kanpainak egiten jarraitu eta ekimenak berritu.
- Ikusarazi euskarak etekina ematen duela eta prestigioa ematen diola negozioari.

HEZKUNTZA - EUSKALDUNTZEA

EGOERA

- Eskolari ematen zaio euskalduntzearen zama guztia, baina zaila da ezer lortzea inguruak ez badu laguntzen. Zentzu horretan, D ereduak lehen baino gutxiago euskalduntzen duen pertzepzioa dago.
- Hezkuntzan lortutakoa ez da gizartean eta kalean islatzen. Gakoa da euskarak eremu formaletik informalerako jauzia egitea.

BALORAZIOA

ONDO EGINDAKOA

- Erabilera areagotzeko ekimenak:
Berbalaguna

HOBETZEKOA

- Herriko ikastetxeekiko harremana, elkarlana
- Euskara ikasteko laguntzak
- Euskarazko ekimenak eskoletatik ateratzea

AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ETA BALIZKO EKINTZAK

- Proiektu partekatuak bideratu herriko ikastetxeekin batera.
- Erakundeen eta ikastetxeen arteko harremanean euskararen erabilera areagotu, eredugarri izan.
- Euskara ikasteko eta sentsibilizatzeko laguntzak eta programa berriak eskaini.



Diagnostiko kualitatiboa AROA marko estrategikoaren ardatzen arabera

Jarraian, galdetegietatik eta saioretatik esparru ezberdinetan egungo egoeraren inguruan ateratako informazioa AROA marko estrategikoan proposatutako ardatzen arabera antolatuta da:

Gobernantza

Gobernantzaren baitan, analisia egiteko esparru ezberdinak identifikatu dira, horietako batzuk udalaren barne funtzionamenduari dagozkionak, eta beste batzuk, udalaren eskumena direnak, baina, herritarrei begirako zerbitzuak direnak.

Euskara plana aurrera eramateko egitura sendoa eratu behar da, zeharkakotasunez jardungo duena. Inbertsioa ere ziurtatu beharko da. Horretarako administrazioak lidergoa hartu beharko du, motorra izan eta eredugarri jokatu; baina lidergo konpartitua bultzatu behar da, alegia, Udalaren eta herri mugimenduaren arteko elkarlana sendoa izan behar da, guztiok norabide beran aritzeko. Politikak, helburuak, neurriak, ekimenak... adostu egin behar dira.

Barakaldo erreferente izan beharko litzateke Ezkerraldean eta horretarako, lehendabizi, euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izan behar da udaleko arlo eta zerbitzu guztietan, administratu guztien hizkuntza eskubideak bermatuta egon daitezen.

Jarrera/motibazioa

Jarrera eta motibazioan, faktore eta bizipen pertsonaletatik haratago, bestelako faktoreek ere eragiten dute barakaldarren: globalizazioak, sare sozialek, ikus entzuneko plataforma handiek, hizkuntza erraldoiez inguratuta egoteak... horren ondorioak nabarmenak dira. Askotan, euskara zamatzat hartzen da; euskara ez da behar, batez ere, gazteen artean. Gainera, eskolari ematen zaio euskalduntzearen zama nagusiena; baina ingurunearen laguntzarik gabe eta irakasleen inplikazio eskasa kontuan hartuta, zaila da aurrerapausoak ematea.

Kirolean ere antzeko jarrera antzematen da, helburua kirola bera da eta ez da loturarik egiten euskararekin, ezta euskaratik.

Euskarak prestigio gehiago izan beharko luke Barakaldon; barakaldarrak harro egon beharko lirateke euskaldun izateaz. Ilusioa, atxikimendu positiboa, herri nortasuna eta harrotasuna bultzatu behar dira eta aintzat hartu behar da kulturartekotasunak aberastu egiten gaituela, identitate ezberdinak eta nortasun bide ezberdinak egon daitezkeela eta guztion arteko sinergiak lortu behar ditugula.

Zentzu horretan, euskaldun hiztunok autokritika egin behar dugu, ezin baitiegu eskatu besteei guk egiten ez duguna. Euskaraz aritzeko estres linguistikoak, lotsak... uxatu eta herritarrak ahaldundu eta aktibatu behar ditugu, hizkuntzari balioa emanda.

Gazteak ere erakarri behar ditugu euskarara, atxikimendua eta jarrera positiboak landuta. Eredu erakargarriak eskaini behar zaizkie, espazio eta pertsona erreferenteak ere bai. Era berean, lidergoa hartzen utzi behar diegu. Gure herriko gazteek euskara, alde batetik, hezkuntza formalarekin lotzen dute eta lotura hori ez da oso positiboa izaten (euskara zaila



da, aspergarria, hiperzuentasuna, ...); baina, beste alde batetik, aitortzen dute euskarak izaera, nortasuna, identitatea ematen diela, euskara geurea dela eta gure kulturaren bereizgarritasunik handiena dela. Ondorioz, gure gazteek ez dute euskara gorrotatzen; baina euskara erabiltzeko aukera erakargarriak aldarrikatzen dituzte eta era berean, ahalduntze-estrategiak ere beharko lituzkete, ulertzeko euren euskara beste edozein euskaldunena bezain egokia dela.

Etorri berriei dagokienez, euskararekiko jarrera positiboa izaten dute, baina, euskara ez da euren lehentasunen artean sartzen. Hala ere, seme-alabek euskaraz ikastea nahi eta ahalbidetzen dute. Oro har, harrera plan integralaren falta antzeman da, zeinetan hizkuntzaren lanketa barnebiduko den. Parte hartzaileen ustez, Barakaldora lehenengo aldiz heltzen direnek ez dute jakiten beste hizkuntza bat dagoenik ere. Denbora bat daramatenek euskara ikasteko ikastaroak edo errefortzuak eskatzen dituzte eta herritar horiei laguntza eskaini behar zaie.

Ezagutza/ gaitasuna

Hizkuntza gaitasuna eta ezagutza mailari dagokionez, urte batzuetan eskolan euskaraz ikasiz gero ezagutza bermatuta zegoela uste da. Egun, eskoletako D ereduak lehen baino gutxiago euskalduntzen duela eta ezagutza maila ez dela uste bezain handia aipatu dute parte hartzaileek. Euskara eskoletatik atera behar da, testuinguru formaletatik kanpoko erabilera sustatzen ez den bitartean, ezagutza datuak hutsalak izango dira eta.

Edozein modutan ere, agerian dago euskararen jabetze eta zabalkunde-prozesua ezin dela soilik ikastetxeen erantzukizuna izan. Hezkuntza komunitatea ikastetxeek, administrazioak, familiek eta ikasleek berek osatzen dute eta elkarlanean aritu behar dugu aurrerapausoak emateko. Hala, ikastetxeei zein administrazioari eredugarritasuna bultzatzea dagokie, haiek baitira ikasle zein familientzako erreferente linguistikoak. Baina, eragile guztiok arraun behar dugu langintza honetan.

Hala izanik, familiekin lan egin behar da, alde batetik, familia transmisioa bermatzeko eta bide batez, etxeko hizkuntzan eragiteko. Baina, beste alde batetik argi izan behar dugu Hezkuntza komunitatearen ekosisteman familiak eragile oso garrantzitsuak direla; hori dela eta familia euskaldunak zaindu behar ditugu eta familia ez euskaldunei laguntza eta baliabideak eskaini behar zaizkie, guztiek seme-alaben euskara-mailaren optimizazioan eragin dezaten.

Barakaldoko familia gehienek euskararen gaitasun maila apala dutela aitortzen dute (aspaldi ikasi zuten eta erdi ahaztuta daukate; kostatu egiten zaie; orain ikasten ari dira; ohitura falta). Hori dela eta, gutxitan erabiltzen dute euskara etxean; baina, hala izanda ere, Barakaldoko familia gehienek aitortzen dute euskara garrantzitsua edo oso garrantzitsua dela.

Agerian dago, beraz, familiak aliatu bikainak izango direla, baina laguntza behar dutela.

Azkenik, ezin dugu ahaztu barakaldarren %57k ez dakiela euskaraz eta gabezia hau oso nabarmena dela hainbat esparrutan; esate baterako, merkataritza edo ostalaritzako establezimenduetan. Sektore honetan aldakortasun handia dago; lehen kolektiboa euskaldunagoa zela antzematen zen.



Erabilera/elkarreragina

Erabilera izan da kezkarik handienetako bat, eragile guztiek zer esan eduki dute eta.

Merkataritza eta ostalaritzan euskaraz aritzeko erreferentziatzko tokien falta dagoela azpimarratu dute. Arlo sozioekonomikoan euskaraz jarduteko aukerak sortu beharko lirateke, gutxienekoak bermatu, behintzat. Halaber, kontsumitzaileak / erabiltzaileak ahaldundu eta aktibatu beharko lirateke.

Familien artean guraso euskaldun gehiago daudela aipatu da, baina haurren adinaren arabera erabilerak gora edo behera egiten duela eta hezkuntzan, orokorrean, giro erdalduna nagusitzen dela. Herria, eskola eta familiak batera aritu beharko lirateke, hizkuntza jarreretan eragiteko.

Gazteei dagokienez, erabilera eremu formaletara mugatzen dela eta erreferente eta eredu erdaldunak dituztela ikusten da. Aisialdian eta kulturaren duten eskaintza asko gaztelaniaz egiten da eta kirolean hutsune handia dago.

Aurretik aipatu den bezala, Barakaldon euskarak prestigio falta du; estres linguistikoa sortzen duten eguneroko egoera asko daude eta batzuen ustez hori izan daiteke erabilera giroaren arabera baldintzatuta egotera eramaten duen arrazoi bat.

Barakaldon euskaraz murgiltzeko eta euskaraz bizitzeko aukera gehiago egon beharko lirateke gizartearen esparru guztietan.

Komunikazioa/hedapena

Euskararen erabilera areagotzeko ekimenen inguruko komunikazioa hobetu eta berri beharra dagoela aipatu da, interes talde eta esparru ezberdinetara modu eraginkorragoan iristeko.



4. AROA 2025-2029

- Hamarkada baterako marko estrategikoa eta prozesua proposatzen du AROAk
- Eragile ezberdinen (norbanakoen, eragile sozialen, eragile publikoen) arteko lankidetzak partekatua proposatu eta koordinazio egiturak zehaztu ditugu.
- Tokian tokiko behar eta helburuei egokitua

4.1 MISIOA, NAHI ESTRATEGIKOA, IKUSPEGIA



Misioa

Barakaldon zerbitzu publikoetan eta pribatuetan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko oinarriak jarri, gizarteari erakutsiz euskararen onurak eta euskal hiztun kontzienteak aktibatuz.



Nahi estrategikoa

Euskara barakaldarren eskura jarri eta herrian zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeekin eskuz esku lan egin eta euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan lagundu.

Euskal hiztunen komunitatea jantzi aldaketarako estrategian eta guztion artean barakaldarrentzako komunitate irekia eta erakargarria sortu.



Ikuspegia

Barakaldoko euskaldunen kopuruak gora egin du.

Euskara sustatzeko eragileek modu koordinatuan jarduten dute euskararen alde.

Euskal hiztun aktibo gehiago dago herrian modu asertiboan jarduten eta euskara sustatzen.

Euskaldunen komunitatea kolektibo aktibo, inklusibo eta erakargarria da herrian.

Esparru guztietan euskaraz bizitzeko aukera gehiago daude.

Barakaldon, kalean, arlo sozioekonomikoan... euskarak presentzia handiagoa du.

Herriko establezimenduetan lehen hitza euskaraz izatea ohikoa bihurtu da.



4.2. ARDATZ ESTRATEGIKOAK

AROA markoan 7 ardatz proposatzen dira. Barakaldon, ordea, 5 ardatzetako proiektuak aurreikusi dira: Gobernantza, Jarrera/Motibazioa; Ezagutza/Gaitasuna, Erabilera/Elkarreragina, eta Komunikazioa eta Hedapena

Gobernantza

Aroa abiapuntu hartuta, Barakaldoko eragileen (talde zein norbanako) eta entitateen arteko lankidetzan sakontzeko proposamenak egin dira. Lankidetzan horren ezaugarri izango lirerateke, besteak beste, honakoak: zeharkakotasunez jardutea, udaleko sailekin eta entitateekin elkarlanean aritzea, eta esparru ezberdinetako eragileen parte hartzea eta haiekiko elkarlana bermatzea.

Ondoko taulan jaso ditugu datozen 5 urtetan landuko diren erronkak, lan ildoak eta ekimenak, AROA markotik aukeratutakoak.

ERRONKAK	LAN ILDOAK	EKIMENAK
G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman	G.1.1. Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu.	G.1.1.2. Erakunde publiko eta pribatuekin lan egin herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko eginbeharrez jabe daitezen.
	G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.	G.1.2.1. EAEko administrazioen artean zein administrazio bakoitzaren barruko sail edo atalen artean elkarlana bultzatu. G.1.2.3. Erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu. G.1.2.4. Euskararen normalizazioan ari diren pertsonak, elkarteak, erakundeak, hedabideak, enpresak... saretu.
	G.1.3. Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.	G.1.3.1. Arduradun politikoak eta teknikoak euskara biziberritzeko prozesuetan trebatu. G.1.3.2. Lidergo postuetan hizkuntza-jokabide eredugarriak adostu eta gauzatu. G.1.3.3. Administrazio publikoek euskararen biziberritzearen aldeko jokabide eredugarriak areagotu.
G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan	G.2.3. Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.	G.2.3.2. Euskara biziberritzearen aldeko eta gizarte-berdintasunaren aldeko politikak uztartu, elkarrengandik elikatu. G.2.3.4. Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasle, ikasleak, familia...) eta udalak biziberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sentsibilizatuz, komunikazio-esparruak zabalduz

ARDATZA: GOBERNANTZA								
XEDE TALDEA	EKINTZA	2025	2026	2027	2028	2029	Arduraduna	Norekin batera
Administrazioa	Udal zerbitzuetan euskarazko zerbitzua bermatu ahal izateko neurriak hartu						Udala	Erakunde autonomoak Enpresa publikoak
Administrazioa	Udaleko euskara batzordea sortu						Udala	
Administrazioa	Euskararen erabilera normalizatu eta bultzatzeko proiektu estrategikoetan, udal arlo eta zerbitzu guztiak inplikatu.						Udala	
Administrazioa	Arduradun politikoak eta teknikoak trebatu eta ahalduzko neurriak hartu: formazio-saioak egin (sentsibilizazioa, eredugarritasuna, euskararen aldeko lidergoa...)						Udala	
Administrazioa	Udalaren erabilera plana bete						Udala	
Administrazioa	Udalaren euskara planaren berri eman herritarrei						Udala	
Herrigintza Euskalgintza	Euskararen Aholku Batzordea osatu eta egungo beharren arabera egokitu/berriztu/indartu.						Udala	Gizarte eragileak
Herrigintza Euskalgintza	Udalaren eta herri mugimenduaren (euskalgintza eta bestelako eragileak) artean lidergo partekatua eta lan banaketa bultzatu						Udala	Gizarte eragileak
Gazteak	Gazte Batzordea sortu eta bere jarduna indartu						Udala	Gazteria zerbitzua Ikastetxeak
Etorri berriak	Herriko harrera protokoloan euskara txertatu eta zeharlerrotasunez lantzeko proposamena landu Immigrazio zerbitzuarekin						Udala	Immigrazio zerbitzua

Jarrera/Motibazioa

Hiztunek euskararekiko dituzten motibazioei eta harremani begira jarri eta proposatu dugu ardatz honi lotutako plana. Batetik, euskal hiztunak ahaldundu eta aktibatzeke eta euskal komunitatea indartzeko jardungo dugu, eta bestetik, hiztun berriak erakartzeko euskarari eta euskaldunen komunitateari zor zaien prestigioa eta ikusgarritasuna ematea bilatuko dugu.

ERRONKAK	LAN ILDOAK	EKIMENAK
JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta - portaeretan eragin.	JM. 1.1, Euskaldun izatearen garrantzian eragin JM.1.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu. JM.1.3. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin. JM.1.3.4. Euskal komunitatearen ikusgarritasuna bermatzeko estrategiak diseinatu eta garatu	JM. 1.1.1. Herritarren hizkuntza eskubideen gaineko kontzientzia areagotu JM. 1.1.3. Euskara ikasteko, erabiltzeko eta transmititzeko motibazioak landu, bereziki zainduz harreman eta lagunarte berriak sortzen diren uneak JM.1.2.2. Eskaintza eta eskaera aktiboak eta jarrera proaktiboa bultzatu administrazioan, arlo sozioekonomikoan eta herritarren artean. JM.1.3.2. Ahalduntze-prozesuak sortu eta dinamizatu.
JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.	JM.2.1. Euskaldunen komunitatea sendotu. JM.2.2. Euskararen erakargarritasuna landu	JM.2.1.1. Komunitatearekiko atxikimendua lortzeko eta komunitatearen parte izateko bideak aztertu eta estrategiak landu. JM.2.2.1. Gizartearentzat erreferenteak diren pertsonekin zein erakundeekin euskara sustatzeko lanketa egin.

ARDATZA: JARRERA - MOTIBAZIOA								
XEDE TALDEA	EKINTZA	2025	2026	2027	2028	2029	Arduraduna	Norekin batera
Gazteak	Gazteentzako erreferenteak diren pertsonak baliatu euskara prestigiatzeko (kirolariak, musikariak...)						Udala	Gazteria zerbitzua, Aisialdi elkarteak, ikastetxeak
	Gazte euskal hiztunei aitortza egin eta ahalduzko bitartekoak eskaini						Udala	Ikastetxeak
	Kirol eta aisialdiko begiraleentzako formazioa antolatu hizkuntza jokabideei eta euskaraz aritzeko baliabideei buruz. Eredugarritasunaren kontzientzia bultzatu						Udala	Aisialdi elkart. Kirol elkarteak Kultur elkart.
Familiak	Euskararen transmisioaren garrantziari eta gurasoen eredugarritasunari, portaera eredugarriari, buruzko sentsibilizazio saioak / kanpainak egin						Udala	Ikastetxeak Guraso elkarteak
Etorri berriak	Etorri berrien harrera planaren bitartez, euskararen balioa eta integrerako izan dezakeen garrantzia ere transmititu.						Udala	Immigrazioa Etorri berrien elkarteak
Arlo sozioekonomik.	Euskarari buruzko diskurtsoa landu ostalari eta merkatariekin: “Euskarak negozioari ematen dion prestigioa eta, balio erantsia” ikusarazi eta euskararen normalizazioari egiten zaion ekarpena aitortu						Udala	Ingurualde Merkataritza eta Ostalaritza elkarteak
	Euskal hiztunak (kontsumitzaile/erabiltzaile diren neurrian) ahalduzko eta aktibatuzko sentsibilizazio kanpainak egin.						Udala	Ingurualde Gizarte eragileak
Gizartea	Barakaldon, esparru ezberdinetan euskararen ikaskuntzan, erabileran edota aldeko jarreran eredugarriak diren pertsonak euskara eurenganatzeko egindako ibilbidea aitortu eta ikusgarritasuna eman (kanpainak, herriko komunikabideen bidez...)						Udala	Euskaltegiak Ikastetxeak Gizarte eragileak

Ezagutza/Gaitasuna

Euskararen ezagutzari dagokionez, batez ere bi erronka nagusiri erantzungo dioten ekimenak proposatu dira: Barakaldon eta sektore zehatz batzuetan (merkataritzan eta ostalaritzan, kasurako) euskararen ulermena zabaltzeari lotutakoak, batetik, eta gazteek euskaraz aritzeko adierazkortasuna eta segurtasuna irabaztearen ingurukoak bestetik.

ERRONKAK	LAN ILDOAK	EKIMENAK
EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.	EG. 2.2. Euskara ikasteko aukera berriak	EG.2.2.1. Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertu eta beharraren arabera eskaintzak sortu.
EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu		
EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, gaitasun erlatiboa berariaz zaindu.	EG.4.1. Euskal elebidunen eta elebidun orekatuen ehunekoa handitu, bereziki gazteena.	EG.4.1.2 Gazteen adierazkortasuna eta euskararen ezagutza praktikoa handitzeko tresnak garatu

ARDATZA: EZAGUTZA-GAITASUNA								
XEDE TALDEA	EKINTZA	2025	2026	2027	2028	2029	Arduraduna	Norekin batera
Ostalariak eta merkatariak	Ostalariak eta merkatariak zuzendutako euskara ikastaroak: ulermena lortzeko, maila hobetzeko..						Udal euskaltegia	Udala Inguralde
Ostalariak eta merkatariak	Merkatariek eta ostalariak euskarazko esaldi solteak ikasteko "Erraza da", "Ingura" edo horrelako aplikazioen erabilera sustatu.						Udala	Inguralde Ostalari eta merkatarien elk
Gazteak	Esparru informaletan euskara erabiltzeko aisialdi-aukera erakargarriak eskaini gazteei; ahal dela, eurek proposatu eta diseinatutako jarduerak.						Udala	Gazteria zerbitzua Ikastetxeak Aisialdi elkarteak
Etorri berriak	Etorri berrientzako euskara-ikastaroak eskaini.						Udal euskaltegia	Udala Immigrazio zerbitzua
	Haur eta nerabe etorri berriak euskara eurenganatzeko errazteko errefortzu eskolak antolatu.						Udala	Euskaltegiak Immigrazio zerbitzua Ikastetxeak
Gizartea	Herritarrentzako euskara ikasteko dirulaguntzak eman						Udala	
	<i>Berbalagun</i> bezalako programak sustatu						Udala	Euskaltegiak Gizarte eragileak Herritar aktiboak

Erabilera/Elkarreragina

Barakaldon euskara erabiltzeko aukerak areagotzea izango da erronka hurrengo urteotan, herriko esparru, gunee eta giza talde ezberdinetan. Zentzu horretan, gakoa izango da udalak herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko duen arduraz kontzientzia hartzea eta euren eta euren menpeko erakundeen zerbitzu kartan euskarazko eskaintza bermatzea. Zentzu horretan, euskal hiztunen estres linguistikoa gutxitzen lagunduko duten neurriak proposatu dira.

Gainera, zerbitzu horien erabiltzaile eta kontsumitzaile diren euskal hiztunak ahaldundu eta aktibatuzeko ekintzak ere zehaztu ditugu.

ERRONKAK	LAN ILDOAK	EKIMENAK
EE.1.Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.	EE.1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu	EE.1.1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu EE.1.1.3 Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan. EE.1.1.5. Aisialdi antolatuaren eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu. EE.1.1.9. Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten.

AR DATZA: ERABILERA – ELKARRERAGINA								
XEDE TALDEA	EKINTZA	2025	2026	2027	2028	2029	Arduraduna	Norekin batera
Administrazioa	Udaleko zerbitzuen eta bere menpeko erakundeetako zerbitzuen eskaintza euskaraz bermatu						Udala	Erakunde autonomoak Enpresa publikoak
Ostalaritza eta merkataritza	Ostalaritzan, merkataritzan eta zerbitzu enpresa txikietan <i>Euskaraz Barra-barra</i> sustatu, euskara erabiltzeko aukera identifikatu ahal izateko.						Udala	Inguralde Merkatari eta ostalarien elkarteak
	Ostalaritzan eta merkataritzan euskara gehiago erabil dadin (errotuluak, kartelak, lehen hitza, ...) baliabideak eskaini (itzulpenak, dirulaguntzak...)						Udala	Inguralde
Aisialdi eta Kirol elkarteak	Aisialdi eta Kirol elkarteetan euskararen erabilera areagotzeko neurriak/mikroplanak inplementatzeko aukera aztertu						Udala	Aisialdi eta kirol elkarteak
Etorri berriak	Etorri berrien integrazioa bultzatu eta aisialdi-ekintzetan euren parte hartzea sustatu (euskara ardatz izanik). Adingabe eta familiekin lan egin.						Udala	Immigrazio zerbitzua eta elkarteak Ikastetxeak Gizarte eragileak
Euskal hiztunak	Herritarrak aktibatuzeko kanpainak egin, euskararen erabilera sustatzeko (Euskaraldia, Korrika...).						Udala	Gizarte eragileak Euskaltegiak Ikastetxeak Hiztun aktiboak
Gizartea	Euskararen erabilerarako babesgune izan daitezkeen esparruak identifikatu eta berriak sortu.						Udala	Gizarte eragileak

Komunikazioa / Hedapena

Ardatz honetan komunikazioaren barne eta kanpo dimentsioei arreta jartzeko ekimenak landuko dira, prozesuan zehar zein amaieran. Norbanakoaren, eragile-taldeen edota komunitatearen arteko harremanetan eragin beharko da komunikazio eraginkorra lortzeko.

ERRONKA
KH.1. Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu

ARDATZA: KOMUNIKAZIOA - HEDAPENA									
XEDE TALDEA	EKINTZA	2025	2026	2027	2028	2029	Arduraduna	Norekin batera	
Gizartea	Ekimenak planifikatzerakoan interes taldeak eta helburuak kontuan hartu eta horien arabera komunikazio eta hedapen estrategia diseinatu.						Udala	Gizarte eragileak	
	Udalak zein herri eragileek antolatutako ekintzei zabalkundea eskaini eta baloreari jarri, ahalik eta hedapen handiena lortzeko, Udalaren sare sozialak, herri komunikabideak... baliatuta.						Udala	Euskaltegiak Ikastetxeak Gizarte eragileak	
	Esparru bakoitzean erreferente diren eragileak (pertsonek, elkarteak...) identifikatu eta sareak sortu eta elikatu.						Udala	Euskaltegiak Ikastetxeak Gizarte eragileak	
	Kultur agenda bateratuak sortu eta elikatu. herriko euskarazko eskaintzari ahalik eta zabalkunderik handiena emateko.						Udala	Gizarte eragileak	



4.3. KOORDINAZIOA ETA EGITURA

AROA elkarlanerako markoa da, erakunde eta eragile sozialen arteko lankidetzaz sustatu nahi duena, eta nahi horri erantzuteko, markoan bertan zehazten den moduan, beharrezkoa da gobernantza eredu jakin bat, zeharkakotasunean eta parte hartze koordinatuan oinarritutakoa eta, era berean, tokian tokiko beharrei lekua egingo diena. Izan ere, euskara zerbitzuak edota euskalgintzak egingo duen jardunarekin batera, gizartearen esparru guztietatik eraldatu nahi da euskararen indarberritzea.

Barakaldon ere apustu egin da datorren plangintzaldian euskararen plan estrategikoa elkarrekin eta elkarlanean aurrera eramateko egiturak sendotu eta sortzeko.

	FUNTZIOAK	OSAERA
EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA	<ul style="list-style-type: none"> ~ AROA Planaren jarraipena egitea ~ Planari ekarpenak egitea eta beharrezko egokitzapenak proposatzea. ~ Urteko Kudeaketa Plana adostea. ~ Prozesuaren amaieran, Euskara zerbitzuarekin batera, balorazioa egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> Udalbatzako alderdi politikoek ordezkatzen dituzten erakundeak, eragileak, elkarteak edo herritarrak.
EUSKARA BATZORDEA	<ul style="list-style-type: none"> ~ Prozesuaren ikuspegi osoa izatea eta jarraipena egitea. ~ AROA planeko eragileekin biltzea eta elkarlanerako aukerak aztertzea. ~ Urteko Kudeaketa Plana proposatzea (ekintzak, ardura banaketa, adierazleak). ~ Prozesuaren amaieran, balorazioa egitea. ~ Erabaki organoetara proposamenak bideratzea eta ekarpenak jasotzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Alkatetza Euskara zinegotzia Euskara zerbitzua
GAZTE TALDEA / BATZORDEA	<ul style="list-style-type: none"> ~ Gazteen beharrezkoen erantzuteko planifikazioa egin ~ Planari ekarpenak egitea eta beharrezko egokitzapenak proposatzea. ~ Urteko plana adostea. ~ Prozesuaren amaieran balorazioa egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> Begiraleak Gazteak Gazteria teknikaria (une puntualetan) Euskara zerbitzua (une puntualetan)



4.4. ADIERAZLEAK

Adierazleei dagokienez, datuak beharko ditugu aurreko lerroetan aipatutako ideien argazki bat osatzeko eta jakiteko ea bide onetik goazen ala ez. Hona hemen argazki hori osatzeko estrategikoak diren adierazleak:

Euskararen
ezagutza

Euskararen
erabilera eta
eskaintza

Euskararen ezagutza

- Ezagutza datuak
- Ulermena zabaltzea

Euskararen erabilera eta eskaintza

- Sektorre publiko eta pribatuen eskaintza
- Erabiltzaile eta kontsumitzaileen hizkuntza hautua
- Eragiten diren sektoreetan egin den aurrerapen maila

Kudeaketa

Abian jarritako planaren osasun-maila egokia den ala ez jakiteko, planaren betetze-maila kuantitatiboari erreparatuko diogu, baita emaitza kualitatiboari ere. Urte anitzeko plana egiteko urtez urteko kudeaketa planak zehaztuko dira.

- Adierazle orokor gisa, planaren betetze-maila % 80tik gorakoa izatea zehaztuko da.

Ebaluaziorako metodologia gisa proposatzen ditugunak:

- Gogobetetze inkestak herritarren eta eragileen artean
- Parte hartze datuak antolatzen diren ekimenetan
- Inplikaturako eragileen arteko gogoetak eta ebaluazio kualitatiboa
- Udaleko sailekin edota eragile sozialekin bideratutako lankidetzak proiektuak
- Komunikazioa





5. Eranskinak




5.1 GALDETEGIKO ERANTZUNAK ETA ONDORIOAK



Jarraian, diagnostikoaren atalean jasotakoaz gain, galdetegietatik ateratako bestelako erantzunak azalduko dira, diagnostikoa osatzeko helburuarekin.

Horrez gain, galdetegietatik jasotako erantzunak eta iruzkinak kontuan hartuta ateratako ondorio batzuk ere jasoko dira.

ERANTZUNAK







ONDORIOAK

Gazteak

16 eta 25 urte bitarteko gazteei zuzendutako inkesta izan da.

Guztira, 328 inkesta jaso dira. **Inkestaren %78 16 eta 18 urte bitartekoak** izan dira. Beraz, argi dago, inkesta honetatik ateratako ondorioak Barakaldoko gazte-nerabe esparruari dagozkiola.

Horrez gain, esanguratsua da gazteen **%68k gaztelaniaz bete** izana inkesta. Honen harira, azpimarratu behar da inkesta euskaraz erantzun duten inkestaren %63 emakumezkoak izan direla. Agerian dago, hortaz, **emakumezkoen artean sentsibilizazio maila altuagoa** dagoela euskararekiko.

Bestalde, aitortu behar da gazteen pertzepzioetan ez dagoela alde handirik euskaraz bete zein gaztelaniaz bete dutenen artean.



~~Gazte gehienek -%77- gaztelania dute lehen hizkuntzatzat~~ Susposatzen da gazte hauen guraso asko bertokoak direla, 45-48 urte ingurukoak eta B edo D ereduan ikasi ahal izan dutela. Tamalez, ez dirudi honek etxeko hizkuntzan eraginik duenik.

Gazteen ustez, Barakaldon **euskararen erabilerak mantendu edo behera egin du**. Gazteen unibertsoan, eremu formaletik kanpo –ikastetxeak, kultur eskaintza- euskara gutxi, oso gutxi erabiltzen da; hortik, bada, pertzepzio negatibo hori.

Edonola ere, gazte hauen erdiek euskara erabiltzen dutenean, **eroso, konfiantzaz edo harro** sentitzen dira; are gehiago, euskarari balio handia aitortzen diote.

Egia da, halaber, **gaztelaniaz erantzun dutenen artean**, euskararen prestigio mailak behera egiten duela eta hauen erdiek aitortzen dutela euskara oso gutxi erabiltzen dutela kostatzen zaielako eta **erraztasun handiagoa dutelako beste hizkuntza batean**.

Arestian adierazi dugun bezala, euskara ahul ikusten dute esparru guztietan eta euren ustez, **hizkuntza ohituretan eta euskaraz bizitzeko aukera errealetan eragin** beharko litzateke.

Hainbat komentario:

- *Nire ustez, jendeari lotsa ematen dio euskaraz aritzea ohituta ez daudelako. Uste dut jende gehiagori entzungo baliote euskaraz hitz egiten, lotsa hori nabarmen desagertuko litzatekeela.*
- *Me gustaría que se enseñara mejor el euskera.*
- *Estaría bien fomentar el uso del Euskera en algunos contextos pero a la hora de estudiar me parece una desventaja, me parece muy difícil estudiar en Euskera las asignaturas que son de estudiar de memoria. Debería de haber mas institutos con modelo A.*
- *Para mi el euskera no es tan importante como para otros, pero no me gustaría perder el idioma.*

25 urtetik gorakokak

Guztira, 704 inkesta jaso dira. **Inkestatuen bi heren 35 eta 49 urte bitartekoak** izan dira. Beraz, argi dago, euskaldun edo euskaltzale kopururik altuena adin tarte horretan dugula Barakaldon.

Gazteekin gertatu den bezala, inkestatuen **%66k gaztelaniaz bete** dute inkesta eta gehienak **-%80- emakumezkoak** izan dira. Agerian dago, beraz, Barakaldoko euskaldun profil nagusia 35 eta 49 urte bitarteko emakumezkoa dela.

Inkestatu gehienek -%72- gaztelania dute lehen hizkuntzatzat. Gazteen inkestekin alderatuta, harrigarria da portzentaia baxuagoa izatea, batez ere, aintzat hartuta inkestatu hauen guraso gehienek kontaktu txikiagoa izan zutela euskararekin. Duda barik, belaunaldi horrek motibazio eta militantzia maila altuagoa izateak konpentsatu ahal izan zuen ustezko hizkuntza-gaitasun apalago bat.

Gazteen inkestekin alderatuta, harrigarria da, halaber, euskararen pertzepzioa guztiz bestelakoa dela; izan ere, inkestatuen **%80k** uste du Barakaldon **euskararen erabilerak gora egin duela edo behintzat, mantendu egin dela**. Hemen ere, duda barik, adinak zer ikusia du; gazteentzat euskara beti egon da presente; hortaz, ez dute aldaketarik igartzen. Adinean gora egin ahala, ordea, aurrerakuntza argiago ikusten da.



Euskararen erabilera nagokionez, alde handia antzeman da inkesta euskaraz edo gaztelaniaz erantzun dutenen artean. Izan ere, **euskaraz erantzun dutenek -%70- euskara asko erabiltzen dute**, eroso, konfiantzaz edo harro sentitzen dira eta balio handia aitortzen diote euskarari.

Gaztelaniaz erantzun dutenek, berriz -%87- apenas erabiltzen dute euskara. Edo ez dakite euskaraz edo kostatzen zaie eta erraztasun handiagoa dute beste hizkuntza batean. Hala ere, erdiek baino gehiagok aitortzen dute euskara garrantzitsua dela.

Erabilera-esparruak bat datoz kasu bietan; nagusiki, **euskara lanean edo etxean, familiarekin erabiltzen da**. Edozein modutan, espero zitekeenez, inkesta euskaraz erantzun dutenek erabilera-esparru handiagoa dute –aisialdia, administrazioa, gizarte sareak...-

Azkenik, guztiek ikusten dute **euskara indartsuen Hezkuntza esparruan eta ahulen kaleko erabilera askean**, alegia, gazteen artean, lagunen artean, arlo sozioekonomikoan...

Era berean, bat datoz **eragingune** izan beharko liratekeenetan: **gazteak, hizkuntza ohiturak, euskaraz bizitzeko aukerak eta etorri berriak**.

Hainbat komentario (*jatorrizko hizkuntza mantendu da):

- *Instituzio publikoak eredu izan behar dira, eta eskaintza guztiek euskaldunak kontuan hartu behar dituzte.*
- *Ezagutza handitu da eta gero eta guraso gehiago euskaraz egiten dute seme-alabekin baina gero haien artean erdaraz, umeen arteko hizkuntzan eragin gabe. Hor jarri beharko zen indarra, euskara baloratu, prestigiatu eta ereduia izan. Zer ikusi, hura ikasi!!!.*
- *Berdin da zer egiten den guk geuk euskara erabiltzeko esfortzurik egiten ez badugu.*
- *Euskaldunok euskaraz hitz egiten dugunean, beldurrik gabe egin behar dugu. Askotan jendeak martitzekoak izango bagina bezala begiratzen digu eta.*
- *Ikasleen artean gero eta gutxiago entzuten dugu, bai LH bai DBH. Ez dakigu zer gertatzen ari den baina orokorrean hori ikusten dugu. Penagarria da.*
- *No sé apenas euskera, y me parece un idioma precioso y se debería hablar muchísimo más.*
- *Ahora mismo salen del colegio sin saber hablarlo, así es. El sistema que tenemos no FUNCIONA.*
- *Sería recomendable promover el estudio del euskera en un nivel básico para los padres que no lo han estudiado previamente, en mi caso no ha sido requisito para encontrar empleo.*
- *Es difícil aprenderlo y no hay ayudas a padres porque las clases son caras y la forma de dar clases monótonas.*
- *Se necesitan facilidades para poder estudiar en euskera en los euskaltegis municipales. Ayudas antes de aprobar y aun sin aprobar, sería una motivación. Es muy caro apuntarse a un euskaltegi.*



AKTAK (Originalak* - saioetako hizkuntza mantendu da)

Arestian azaldu bezala, prozesu honetan zehar herritarrekin bi saio ireki egin dira, lehenengoa diagnostikora bideratuago, eta bigarrena, planera bideratuago. Saio horien nondik norakoak eta lortutako emaitzak azaltzen dira hurrengo diapositibetan (planean ere jasota):



1. SAIOA

2024ko maiatzaren 23a



TALDE LANA

ETORRI BERRIAK ETA KULTURARTEKOTASUNA

Zein da zuen ustez Barakaldoko euskararen egoera arlo honetan?	Zer landu beharko genuke arlo honetan? Zer da funtsezkoa euskarari bultzada emateko?
<ul style="list-style-type: none"> - Jarrera ona dute, baina ez da euren lehentasuna. Hala ere, euren seme-alabek euskaraz ikastea nahi dute. - Askotan, eskolara iristean izaten dute euskararen berri. - Laguntza eskatzen dute euskara ikasteko, emefortzu eskoletarako laguntza, adibidez. - Ezberdintasunak egon daitezke jatorriaren arabera. - Etorkinek gizartearen ikuspen dutena egiten dute. - Sanitza ez dakite zenbat denborarako datozen eta honek baldintzatu egiten du euskararekin duten harremana. - Euskararen prestigioa gainbehera doa. 	<ul style="list-style-type: none"> - "Euskarak integratzeko plus bat ematen dit" asatera iristea. - Barakaldora datozenean, hamara egiten zaienean, euskara ikasteko aukerak edo euskararen garrantzia azaltzea. Euskarara hurbiltzeko baliatu harrera plana. - Gizartearen integratzeko balioa ikustea. - Gure artean geratu daitezela nahi badugu, "besarkatu" egin behar ditugu. - Gurasoengan eragin.

PRESTIGIOA - OHITURAK - JARRERAK

Zein da zuen ustez Barakaldoko euskararen egoera arlo honetan?	Zer landu beharko genuke arlo honetan? Zer da funtsezkoa euskarari bultzada emateko?
<ul style="list-style-type: none"> - Euskarak ez dauka prestigioirik. - Gizaaren araberakoa. - Estres linguistikoa sortzen duten egoera asko egunerokoan. - Autokritika egin behar dugu, jarrera ona izatea eskatzen diegu besteek eta guk gaiteliaz jarduten dugu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Estres linguistikoa gutxitzeko eragin behar dugu. - Baimera → hausnarketa. Euskaraz aritzeko baldintza eta lotsa kendu. - Kanpora: ahaldundu, balioa eman euskarari.



TALDE LANA

GAZTEAK

Zein da zuen ustez Barakaldoko euskararen egoera arlo honetan?	Zer landu beharko genuke arlo honetan? Zer da funtsezkoa euskarari bultzada emateko?
<ul style="list-style-type: none"> - Ezagutza maila ez da uste dugun bezain handia; esanguratsua da hori 30 urtetik gorakoan artean. - Gazteen erreferenteak / ereduak oso erdaldunak dira. - Euskara zama da, eta ez beharra. - Barakaldon ezin da murgiltzerik egin. - Etorikinek ez dakite nora datozen, ez dakite zer den euskara. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gazteen erreferente euskaldunak identifikatu eta bistaratu. - Gazte etorkinak euskararekiko hurbilketa positiboa eta kalitatekoa eman. - Eskolatik kalera atera gazteei zuzendutako euskarazko ekintzak: BERAIEK antolatatu/gidatu. - Inbertsio handiagoa egin.

FAMILIAK

Zein da zuen ustez Barakaldoko euskararen egoera arlo honetan?	Zer landu beharko genuke arlo honetan? Zer da funtsezkoa euskarari bultzada emateko?
<ul style="list-style-type: none"> - Positiboak. - Guraso euskaldun gehiago dago. - Programazio kulturala - Umeen adinaren arabera, euskara gehiago edo gutxiago. 	<ul style="list-style-type: none"> - Programa kulturalak eta aisialdri lotutakoak antolatu elkarrekin gozatzeko (familia osoarentzako). - Kolektibo errealizatuak: <ul style="list-style-type: none"> → balioa eman euskarari → Ikasteko erantzutza → Euskara erabiltzeko aukerak eskaini



TALDE LANA

AISIALDIA, KULTURA

Zein da zuen ustez Barakaldoko euskararen egoera arlo honetan?	Zer landu beharko genuke arlo honetan? Zer da funtsezkoa euskarari bultzada emateko?
<ul style="list-style-type: none"> - Globalizazioa (sare sozialak, netfilia...). Hizkuntza erraldokak ditugu inguruan. - Reggetoia. - Barakaldon bi kate: eskaintza gutxia gaztelaniaz. - Klima. 	<ul style="list-style-type: none"> - Begiraleak euskaldunak izatea eta euskaraz egitea. Gaitasuna izatea hizkuntza ez-formalean. - Erreferenteak bultzatu. - Kirolean eragin: ezagutzan eta erabileran. - Lehenetsi euskarazko kultura eta aisia. - Zinema – prestigiosa lantzeko. Antzokia. Kaleko zinema, zinema txiki bat.

KIROLA

Zein da zuen ustez Barakaldoko euskararen egoera arlo honetan?	Zer landu beharko genuke arlo honetan? Zer da funtsezkoa euskarari bultzada emateko?
<ul style="list-style-type: none"> - Heiburua ez da euskara, baietik eta kirola bera (eta dirua). - Hutsune handia dago arlo honetan. - Igerilekuan gaztelaniaz da zerbitzua, erakunde publikoen eskumenakoa den arren. Ikasketxoetatik joan ohi dira bertara eta orrek larriagoa egiten du egoera. 	<ul style="list-style-type: none"> - Entrenatzaileak trebatu euskarazko zerbitzua eskaini ahal izateko (hitzegi teknikoak, oinarriak eta elebidunak...) - Kirol eskaintza osoa euskaraz izan beharko litzateke. - Kirol elkarteak zuzendutako dirulaguntzetan eragina izatea. Dirulaguntzetarako irizpideak zehaztu. - Horretaz gain, hitzarmena sortu, jarraipena egin eta betearazi.



TALDE LANA

MERKATARITZA, OSTALARITZA

Zein da zuen ustez Barakaldoko euskararen egoera arlo honetan?	Zer landu beharko genuke arlo honetan? Zer da funtsezkoa euskarari bultzada emateko?
<ul style="list-style-type: none"> - Ø ??? Hutsune oso handia. - Ostalaritza euskaldun gero eta gutxiago zerbitzarien artean. - Jabe aldaketa asko gertatzen ari da ostalaritzan. - Ez dago erreferentziarik toki bat euskaraz aritzeko (Kafe Antzokia?). 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskaltzaleak erakartzeko leku bat, Kafe Antzokia, eta amakastatsus izatea. - Ikusarazi euskarak etekina ematen duela eta prestigioa ematen diola negozioari. - Euren orlutegi eta baldintzetara egokitutako ikastarnak, formazioa... - Paisala, errotulak, menuak, etab. euskaraz ere bai.

HEZKUNTZA, EUSKALDUNTZEA

Zein da zuen ustez Barakaldoko euskararen egoera arlo honetan?	Zer landu beharko genuke arlo honetan? Zer da funtsezkoa euskarari bultzada emateko?
<ul style="list-style-type: none"> - Giro eralduna. - Eskolari ematen zailo euskalduntzearen zama guztia, baina zaila da ezer lortzea inguruak ez badu laguntzen. - Irakaslearen inplikazio eskasa eta horrek ikaslearen jarreretan eragiten du. Lehen hezkuntzan inplikazio handiagoa dagoenaren ustea. - D eredua lehen baino gutxiago euskalduntzen du. Lehen, mobilazio handiagoa zutenik edota kultura behatz batekoak zirenak joaten ziren D eredia. Testuinguru ezberdinetakoak eta aniztasun handiagokoak dira gaur egun. 	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza jarreretan eragin. - Erabaki amankomunak + alkarlana. - Herria eta eskola batera aritu behar dira. Ikastetxeekin eta eragileekin elkarlanean aritzean jarri fokus.

Hizkuntzaren Egoeraren



Barakaldo eta euskara,

zeintzuk lirateke zuretzat **LORPEN ILUSIONAGARRIAK** hemendik 10 urtera?

- Ama hizkuntza euskara, %5ak
- Gazte guztiek euskara ulertzea
- Kale erabilera %3
- Erabilera %5
- Kaletik euskara gehiago entzutea
- Auzpetan eta dendetan euskara entzutea
- Jarduera euskaldunak plazetan era normalizatuan
- Euskarak prestigioa izatea
- Euskaldun harro gehiago izatea gure herriak
- D eredian aurrerapausoak ematea
- D eredia %90
- Hezkuntza sistema euskalduna eta danontzat
- Gazteen pertzepzioa aldatzea → positiborantz
- Euskararekiko gorrotoaren kontrako jarrerak, irabazle
- Kafe Antzokia Barakaldon
- %100 euskaraz bizitzeko aukera
- Hezkuntza informala euskaraz egiteko aukera
- Hurbila, doakoa, gertua
- Euskara ikastea doan



2. SAIOA

2024ko ekainaren 13a



LORPEN ILUSIONAGARRIAK (aurretik landutakoak)

GOBERNANTZA

Udalaren, elkarteen eta herritarren arteko **elkarlana** sendoa izatea, guztiak norabide berean aritzea.

Euskara izatea **lan eta zerbitzu hizkuntza** udaleko bulego, sail eta zerbitzu guztietan, euskararen erabilera eta euskarazko arreta ziurtatuta.

Euskara ikasteko **dirulaguntzak** eskaintzea herritarrei eta enpresei; euskara doakoa.

JARRERA/MOTIBAZIOA

Euskarak **prestigioa** izatea eta barakaldarrak harro egotea euskaldun izateaz.

Gazteek euskararekiko atxikimendua eta **jarrera positiboa** izatea.

EZAGUTZA/GAITASUNA

Barakaldarren %5a baino gehiagoren **ama hizkuntza** izatea euskara.

Gazte guztiek **euskara ulertzea**.

ERABILERA/ELKARRERAGINA

Barakaldo eta udala **eredugarriak** izatea euskararen erabileran.

Gizartearen esparru guztietan **euskaraz bizitzeko aukera** bermatuta egotea.

Auzoetako kale, denda eta plazetan **euskara entzutea**.

Barakaldon euskara normaltasunez erabiltzeko espazioak: **Kafe Antzokia**.

Hezkuntza sistema euskalduna denontzat; D eredua izatea hezkuntza eredu nagusia.

Hezkuntza informala euskaraz egiteko aukera bermatuta egotea.



TITULARRA ETA AZPI TITULARRA (BANAKA)

Barakaldok "BIKAIN" ziurtagiria lortu du.

Barakaldok euskara sustatu ez ezik, erailteza ere lortu du.

Barakaldoko gazteen artean gero eta euskaldun gehiago dago.

Barakaldoko Kafe Antzokiaren eragina nabarmendu da.

Barakaldon ere euskaraz bizi gara.

Gazteen eta familien atxikimendua euskararekiko gero eta handiagoa da.

Familia euskaldunen iritziz herriko jardueren antolaketak hobera egin du.

Urteetako aladarrikapenak hobera egin dute nabarmen.

0,7tik 5era jausia Barakaldon.

Euskararen erabilerari neurtzeko azken probak nabarmen aurrera egin duela ziurtatzen du.

Barakaldora datozen bisitariak harrিতa, kalean eta edonon, adin guztietakoak euskaraz mintzatzen barra barra dabiltzala ikusita.

Euskara ez da arraroal

Kaletik euskara entzun eta ez dute pentsatu irakaslea naizenik.

Euskarazko aisiaren gorakada gazteen artean.

Geroz eta gehiago dira aisia (kirola, kultura) euskaraz egiteko aukerak eta gazteek hauei ematen diete lehentasuna.

Geroz eta kuadrilla gehiagok erabiltzen dute euskara haien artean.

Euskararen erabilerak nabarmen egin du gora, bereziki gazte belaunaldietan.

Azken urteetan erakundeek eta eragile ezberdinek batera bultzatutako lanaren amaitza izaten ari da.

Egun, euskaraz bizi nahi duen Barakaldar orok du horretarako aukera.



ELKAR JARTZEA (Talde txikietan eta gero handian)



Irudian, identifikatutako kontzeptuak elkar loturik agertzen dira.

Hiru ideia nagusiren bueltan jardun dira:

- Erreferentzialtasunaren inguruan.
- Erabileraren gorakadaren inguruan.
- Aisialdia ilusioz eta atxikimendu positiboz euskalduntzearen inguruan.



HELBURUAK ETA EKINTZAK (Talde txikietan eta gero handian)

GOBERNANTZA: Udalaren politikak, antolaketa eta parte hartze ereduak

- Plana aurrera eramateko EGITURA indartu: Euskara Aholku Batzordea
- Zeharlerrotasunez jardun udalean: lankidetzak beste saliekim arlo estrategikoetan- Gazteria, Immigrazioa, Hezkuntza, sustapen arloa (Inguralde)...
- Gizarte eragileekiko elkarlana proiektuak lantzeko (elkartekak, ekintzaileak, EPA, Hezkuntza komunitatea, euskalgintza...)
- Udalak bere Zerbitzu karta sortu (=baliabideak)
- Udalak zerbitzu publikoetan euskararen eskaintza bermatu (Erabilera Plana)
- Dirulaguntzak, hitzarmenak, kontratazioak erabili euskara sustatzeko (Erabilera Plana)
- Euskararen normalontzarako politika-adostuak hitzartzea (gatazkaririk gabe eta denen artean)
- Nazioarteko, nazioa sortzea
- Inbertsioa
- Plangintza sektorialak (arreta jarri irageneran, behaketan eta jarraipenean). Zertarako argi bat zehaztu, lehenetsiak eta irizpideak zehaztu. Urratsak, adierazleak eta jarraipena.

JARRERA/MOTIBAZIOA

- Etorri berriak euskarara erakarri
- Gazteak euskarara erakarri
- Begirale/entrenatzaile direnei euskarari buruzko prestakuntza eman (prestigioa, erreferenteak)
- Jarrera plan eraginkorra: Ezagutza eskaini, doakotasuna, migrante eredugarriak. Euskara integratzaileko ardatz.
- Komunikazioa eta irudi berriak (personek erreferenteak) sustatu eta bultzatu. Komunikabide mota guztietan.
- Etorri berrientzako: euskara ez duten familientzako eskolar kanpoko jarduerak (eskolan bertan seme alabekin)
- Gazteak: erakargarriak diren ereduak eskaini, haientzako erreferenteak diren espazioak/pertsonak eskaini
- Herri nortasuna. Harrotasuna. Identitate ezberdinak euskaldundu, nortasun bide ezberdinak. Kaleko hizkuntza izan daiteke
- Gazte euskaldunen aitorritza, ahalduntzea eta saritzea. Babesgune kolektiboak sortu?



HELBURUAK ETA EKINTZAK

EZAGUTZA/GAITASUNA

- Ulermena lortzeko eskaintzak garatu
- INGURA App (doakoa, ulermena lortzeko bideratua, zabaltzeko erraza...)
- Gazteek erraztasuna lortzeko bidea egin (mintza saioak, mintzodroma...)
- Ekimen berriak babestu: adib. ANI X proiektua, lehiaketak, sariak...
- Duolingo bezalako plataforma handietan euskara ikasteko aukera egotea.

ERABILERA/ELKARRERAGINA

- Kirolean eskaintza bermatu
- Ostalaritza/Merkataritza euskaraz jarduteko aukerak sortu (gutxienekoak bermatzera jo- paisaia, lehen hitza, oinarrikoak ulertu...)
- Babesguneak izan daitezkeenak sortu- Identifikatu (=Kafe Antzokia)
- Kontsumitzaileak/erabiltzaileak ahaldundu- aktibatu
- Elkarriketa elebidunak "modako" bihurtu
- Euskaldunen estres linguistikoa arindu (EUSLE, Ahalduntze Eskoia...)

IKERKETA/SISTEMATIZAZIOA

- Zeintzuk dira ikerketa gai izan daitezkeen arloak?
- Inbertsioaren eta emaitzen arteko alderaketa.

KOMUNIKAZIOA/HEDAPENA

- Ardatz estrategikoetako interes taldeak identifikatu eta komunikazio estrategia aplikatu
- Gazteak eta familiak
- Etorri berriak: EUSLE programa?



ONDORIOAK

Barakaldoko familiei zuzendutako inkesta izan da. Ikastetxeen bitartez egin da zabalkundea eta oraindik erantzun gehiago sartu ahal diren arren, azaroaren 15ean 802 erantzun genituen. Oso lagin ona izanik, ehuneko guztiak kopuru horren arabera atera dira

- Familien %90ek gaztelaniaz erantzun du inkesta.

Inkesta erantzun duten familia gehienek 4 eta 12 urte bitarteko seme-alabak dituzte; baina, adin tarte guztiak egon dira ordezkaturata emaitzetan:

- 0 – 3 urteko seme-alabak – familien %15
- 4 – 7 urteko seme-alabak – familien %25
- 8 – 12 urteko seme-alabak – familien %39
- 13 – 18 urteko seme-alabak – familien %21

Seme-alabak zein hizkuntza-eredutan dauden matrikulaturata galdetuta, azken urteetako joerari eusten zaiola egiaztatu da:

- A eredia – familien %7
- B eredia – familien %38,5
- D eredia – familien %54,5

Ondoren, familiei galdetu zaie ea euren ustez Barakaldon zeozer gehiago egin behar den euskarari bultzada emateko eta familien %81ek erantzun du baietz, gehiago egin behar dela gurasoen eta seme-alaben euskara maila optimizatzeke.

Familien euskara-mailari buruz galdetuta, agerian dago Barakaldoko familiei kostatu egiten zaiela euskaraz egitea, aspaldi ikasi zutela eta erdi ahaztuta daukatela edo ez dutela segurtasun handirik hizkuntza honetan:

- Euskaldun aktiboak - %7
- Euskara maila ona - %11
- Kostatzen zaie - %18
- Aspaldi ikasi zuten eta gaur egun ahaztuta dute - %32
- Orain ikasten ari dira - %6
- Ez dakite euskaraz - %26

Etxeko erabileraz galdetuta, ondorioak bat datoz euskararen gaitasun mailarekin:

- Ez dute erabiltzen edo oso gutxi – %82,5
- Noizean behin erabiltzen dute – %12,5
- Sarritan edo asko erabiltzen dute - %5

Edozein modutan ere, agerian dago gaitasun-maila edozein izanda eta etxeko erabilera oso urria izan ere, familiek garrantzi handia aitortzen diotela euskarari:

- Ez du ezertarako balio edo garrantzi gutxi du – %15
- Garrantzitsua da – %38
- Oso garrantzi handia du - %47



Ondoren, galdetu zaie ea Barakaldoko euskarazko aisialdi eskaintza ezagutzen duten, eta argi geratu da komunikazio-bitartekoak hobetu behar ditugula, familia gehiagorengana heltzeko:

- Bai – %20
- Baten bat – %49
- Ez - %31

Hala izanik, familien %79k eskertuko lukete Whatsapp edo horrelako kanal baten bitartez, Barakaldoko euskarazko aisialdi-eskaintzaren berri izatea, agenda baten bitartez edo.

Euskarazko aisialdi-ekintzetan parte hartzen duten galdetuta, oso erantzun desberdina jaso da inkesta euskaraz erantzun duten familien eta inkesta gaztelaniaz erantzun duten familien artean. Izan ere,

- Euskaraz erantzun duten familien %62k parte hartu du inoiz halako ekintzetan
- Gaztelaniaz erantzun duten familien %70ek ez du halakoetan parte hartzen.

Edozein modutan, inkestaren amaierako iruzkinak irakurrita, ematen du familia askok euskaraz ez dakitenez edo euskara maila apala dutenez, sentsazioa dutela euskarazko aisialdi-ekintza horiek ez direla haientzat, alegia, ezin dutela parte hartu, familia moduan behintzat.

Galdetuta, zer-nolako ekintzetan parte hartzen duten, agerian geratu da ekintza batzuk oso oso errotuta daudela gure herrian eta familia gehienek uste dutela baliagarriak direla euskarari bultzada emateko. Honatx gehien aipatu direnak:

- Kultur etxeetako kultur gelak, tailerrak, zientzia astea...
- Bazen behin
- Koloniak
- Gabonaldia
- Kilima faktoria
- Arte eszenikoak
- Giltzarri
- Gurasolagun tailerrak
- Euskara taldeak gurasoentzat

Familia batzuk, alabaina, kexu dira hainbat ekintzatan, guztiek euskaraz ulertzen ez dutelako aitzakiapean, ez zaiolako euskarari eusten eta ekintzak nagusiki “gaztelaniaz” egiten direlako. Alderdi hau zaindu beharko genuke, inolako zalantzarik gabe.

Inkesta bukatzeko, galdetu zaie, euren ustez, zeintzuk esparru landu beharko liratekeen gehiago, eta hona hemen familiek non ikusten dituzten premiarik handienak:

1. Errefortzu eskolak haurrentzat / gazteentzat - %51,5
2. Gurasoentzako euskara klaseak - %51
3. Eskolaz kanpoko jarduera gehiago euskaraz ikastetxeetan - %45,6
4. Kultur eskaintza - %44,8
5. Koloniak, ludotekak - %44,4
6. Aisialdi-taldeak - %39,3
7. Familia-tailerrak - %38,5
8. Kirola - %28,7



Azkenik, familiek egindako iruzkinen lagin bat jaso da (* jatorrizko hizkuntza mantendu da):

- *Kaleetan euskaraz gehiago hitz egin beharko genuke guraso euskaldunok, umeek ohitura hartzeko.*
- *Barakaldon gauza asko egiten da euskeraz, baina euskeraren beharra ez dago zabaldua, hau da, umeek, eskolatik kanpo ez dute erabiltzen euskera...*
- *Faltan dugu, Sanbizenteko kultur etxeko txikigunean begirale euskaldun bat (ez dago begiralerik, eta informazio gunekoak ez daki euskaraz).*
- *Barakaldoko jaietan, Sanbizenteko parkean antolatutako jolasen antzeko zeozer egitea asteburuetan, parke desberdinetan edo.*
- *Ikuskizun euskaldunak ekartzeko inbertzioa egitea: Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Ene kantak, Kantu Kolore... eta abar.*
- *Aukera dute euskaraz ikasteko, baina kanpotik datozen umeak ez dute maila bera eta klaseko euskara maila jeitsi behar dute etorri berriak pixkat hurbiltzeko. Bestalde, ez da normala, D ereduko eskola batean, jantokiko langileek euskara ez jakitea. Eta amaitzeko, extraeskolarrak, eskolan nahiz kiroldegietan, klubetan,...Barakaldon behintzat, bakarrik gazteleraz egin daitezke.*
- *Zorrotza izatea euskerarekin. Euskaraz diren ekintzetan euskaraz ez dakiten umeak apuntatzen direnean..ekintza erdaldun bihurtzen da esaten dutelako ez dutela ulertzen...kultur etxeetan gertatu zaigu benin baino gehiagotan eta ez da bidezkoa. Aukera gutxi ditugu eta euskeraz dela adierazten bada programan errespetatu beharko litzateke*
- *Ekintza asko daude baina lekuak oso azkar amaitzen dira. Falta dira ekintza gehiago familiekin, gurasoek beldurra galtzeko. Agian falta da familien ekintzak gehiago publikizatu.*
- *Eskertuko genuke koordinazio gehiago, ez izateko egun eta ordu berean ekintzak, adibidez kilima eta bazen behin edo umetxo edo txikiguneren ekintzak*
- *Gazteentzako euskara txokoak eta aisialdirako baliabideak*
- *Más plazas en las colonias que sean íntegramente en euskera para que no pierdan en vacaciones*
- *Refuerzo del euskera en los colegios, bien por medio de extraescolares o de talleres. Opción de clases para niños más mayores (8-14 años) tipo euskaltegi, que fueran de fácil acceso a las familias. Clases gratuitas o de pago simbólico para padres con hijos en edad escolar, con amplitud de horarios. Y ludotecas y clubs de tiempo libre para niños.*
- *Deportes, talleres y clases de refuerzo en euskera*
- *Creo que en los centros escolares (profesorado, jantoki, extraescolares,...)se debe de reforzar el uso del euskera ya que muchas veces oímos conversaciones entre niños y adultos en castellano. También ofrecer cursos de euskera en los colegios para los padres/madres.*
- *Una convocatoria mensual o bimensual de actividades o salidas en familia sencillas, para padres madres que no sepan euskera, donde sus hijxs les enseñen conceptos básicos para poder usarlo en el día a día, una campaña de concientización amable, de que el euskera es importante y enriquecedor, no un "atraso", concepto preocupante y cada vez mas escuchado en el ambito de las escuelas, y quitarle el miedo a la gente, a la hora de usarlo, quizás la gente que sabe debería no juzgar el intento de alguien que no conoce el idioma y ayudarle de un modo constructivo*
- *Todos los mecanismos necesarios para poder tener una inmersión lingüística real y que el euskera no solo sea una lengua uso en la escuela*
- *Entornos en los que la emotividad sea en euskera y los niños al participar tengan la necesidad de SÍ utilizar ese idioma.*



EUSKARA AZPIARLOA

Que SUBAREAN DE EUSKERA, se puedan ir aunque no sepa euskera, pero tu hijo si. Las actividades en euskera que he recibido a través de las redes de comunicación de mi ikastola siempre han ido orientadas a familias cuyos padres entendieran euskera, con que no he podido participar en ninguna ya que esto es un impedimento al no conocer este idioma. Con que mis hijos no han podido participar en estas actividades y practicar su euskera.

- *Más actividades para padres/hijos en las que no sea necesario dominar euskera para entenderlas, que sea un nivel sencillo o tal vez, bilingües para quienes tenemos un nivel medio-bajo ir cogiendo soltura.*
- *Acompañar más a la familias que no saben euskera para que puedan participar en las actividades*
- *"Talleres familiares en euskera está muy bien para las familias euskaldunes y les viene genial porque en Barakaldo hay poca vivencia en euskera. Pero las familias que los adultos no dominamos euskera pero nuestros hijos están en modelo D, lo que se necesita es incentivar a los adultos. Grupos de aprendizaje para aitas y amas pero por la tarde, en el euskaltegi solo hay por la mañana. Cursos dedicados a fomentar el hablar sin importar tanto el aprobar un examen.*
- *Discotecas, o ocio para adolescentes en euskera, parece que el euskera solo es para niños con espectáculos tipo Pirritx y Porrotx."*
- *"Estaría bien que los jóvenes tengan un sitio donde acudir los fines de semana. En donde se hable el euskera y tengan actividades atractivas para poder disfrutarlo. Les falta un lugar donde poder estar..Muchos municipios ya tienen su txoko para los jóvenes, con diferentes máquinas y con planes para que puedan estar motivados.."*
- *Más actividades ludicas gratuitas dirigidas por monitores euskaldunes, tanto en horario escolar (horario de jantoki-ahora mismo el programa del ayuntamiento solo llega a 1 de cada 6 alumnos solicitantes) como en tiempo libre. El ayuntamiento debería apostar más por los clubes de tiempo libre y financiarlos para que la oferta llegara a más familias (hay listas de espera porque no hay suficientes monitores ni tienen suficientes instalaciones para desarrollar las actividades).*
- *Mas oferta cultural variada de forma continuada a lo largo del año, cuentacuentos todo el año, teatro de marionetas en interior para mejorar la acustica, potenciar mas el uso del euskera en los distintos establecimientos animando a la gente a hablar sin prejuicios ni miedos a equivocarse*
- *Sabiendo las dificultades de un hogar en el que no se habla euskera,me gustaría que la educación en euskera fuera real y que no necesitaran los niños clases extras fuera del horario escolar.*
- *Las clases extraescolares de euskera subvencionadas. Que mi hijo vaya dos días a clases de Euskera para ampliar su vocabulario nos cuesta 400€.*
- *Potenciar el uso del euskera en el deporte escolar. Llevo muchos años metido en el fútbol, tardes y tardes con muchos equipos y ninguno hace uso del euskera en la actividad deportiva.*
- *"Hacer talleres atractivos para familiares y adultos con bajo nivel euskera y conseguir motivación para que retomemos euskera.*
- *Los niños no están acostumbrados a hablar euskara fuera del colegio, por lo que en familia se habla en castellano. Actividades familiares en euskera fomentaría el euskera fuera del cole*



5.4 PROZESUAN PARTE HARTU DUTEN ERAGILEAK

- Barakaldoko Udaleko arduradun politikoak
- Barakaldoko Udaleko teknikariak
- Barakaldoko Udal Euskaltegia
- Sasiburu Euskaldunon elkarteak
- Laguntasuna elkarteak
- Ibarakaldu elkarteak
- Barakaldoko Berbalagun
- Koldo Castaños
- Arantza Altube
- Aitor Gorostiza
- Oihane Anzorandia
- Idoia Anzorandia
- Barakaldoko gazteak
- Barakaldoko gazteria-zerbitzuak
- Barakaldoko hezkuntza zentroak
- Barakaldoko familiak
- Barakaldoko etorri berrien elkarteak
- EMUN, euskara eta berrikuntza soziala